



## RESUMEN - 2016/02 - LABURPENEA

Gogoratzten dizuegu talde guztiak zabalik daudela parte hartu nahi duenarentzako.  
Os recordamos que todos los grupos están abiertos a quien quiera participar.

### Euskara

Hala Bediko saioa dagoeneko gure eskolako 9 umek egin dute, eta 3 saio grabatu dituzte. Esperientzia polita izan da. Saioak entzuteko: <http://halabedi.eus/programazioa/kultura/alai-bedi/>

Irakurketa kluba martxan da. Maiatzean egingo du lehenengo bilera.

Sasoi aldizkariaren kulturartekotasunari buruzko alea kalean izango da laster. Hurrengo aleari dagokionez, patio desberdinari buruzkoa izango dena, elkarrizketak egingo dizkiegu nahi duten umei euren iritzia jakiteko. Bideoz grabatuko ditugu. Horretarako, elkarrizketa labur batzuk egingo ditugu martxoaren 11n eta 18an, guraso elkartearen gelan, 16:30etik 18:00etara. Gonbidatzen ditugu familia guztiak parte hartzera. Esperientzia polita izango da.

Azkenik, aurtengo barnetegi txikia egiteko lekuak eta aurrekontuak aztertzen ari gara. Maiatzean izango da.

Bestalde, 2015/16ko txosten linguistikoari dagokionez (I. eranskinean aurkitu dezakezue), egiten dugun balorazioa, zera da: nabarmena da euskararen jakintzaren eta erabileraren arteko desoreka. Euskararen jakintza maila hain altua izanik, espero liteke euskararen erabilera altuagoa izatea. Gaztelania da hizkuntza nagusia diferentzia handiz. Bigarren hizkuntza gisa euskara erabiltzen da gehien. Hala eta guztiz ere, ez dirudi proportzionala denik gurasoek duten euskara maila etxeetan egiten den euskararen erabilerarekin. Hau da, espero genezake, kasu honetan ere, erabilera altuago bat.

### Patio ezberdina

Kakorratz tailerrekin hasi gara: otsailaren 17, 19, 24 eta 25ean izan dira. Oso balorazio positiboa egiten dugu bertaratzeari buruz (10-15 emakume bitarte etorri dira) eta lanen emaitzari buruz. Emakumeek parte hartzeko gogo handia dute baita ilusioa ere. Gehienak egunero etorri izan dira. Eta hurrengo tailerretara ere etorriko dira. Artile gehiago erosi genuen, zeudenekin nahikoa ez zela uste baitugu.

Otsailaren 11n egin genuen bilera. Erabaki genuen Gorkak pasako ziela informazioa tutoreei "patio amestua"-ri buruzko marrazki erakusketaren deialdia zabaltzeko. Umeek euren marrazkietan egiten dituzten proposamenak izango dira erreferentzia patioko hormak eta zutabeak nola margotu erabakitzerakoan.

Patia margotzea: aztertzen ari gara zein izango den patia margotzeko erarik onena (profesionalei antolatzeko enkargua ematea eta familiak parte hartu ahal izatea, graffiti-egileak kontratatzea eta ahal den neurrian haiei lagundu, edo guk geuk egitea, nahiz eta lan hain profesionala ez izan).

Bideoa egiteko deialdia erredaktatu dugu. Sasoi aldizkarian atera da dagoeneko (martxoaren 11 eta 18an, 16:00etatik 18:00etara). Patia dekoratzeko eguna maiatzaren 7a izango da. Martxoaren 3 eta 17an bilduko gara berriro, 09:00etan.

### Euskera

Ya han participado 9 niñas/os de nuestro colegio en el programa de Hala Bedi, repartidos en tres programas. Ha sido una bonita experiencia. Para oír los programas: <http://halabedi.eus/programazioa/kultura/alai-bedi/>

El club de lectura está en marcha. En mayo se reunirá por primera vez.

En breve saldrá el ejemplar de la revista Sasoi dedicado a la interculturalidad. En cuanto al siguiente número, en torno al tema del patio diferente, se va a realizar una sesión de video con niños y niñas para que nos aporten su opinión. Las entrevistas serán cortas y se realizarán el 11 y 18 de marzo en la sala del AMPA de 16:30 a 18:00. Invitamos a todas las familias a participar. Será una bonita experiencia.

Por último, estamos barajando distintos lugares y presupuestos para la edición del barnetegi txiki de este año, que planeamos sea en mayo.

En cuanto al informe lingüístico 2015/16 (lo tenéis en el anexo I), la valoración que hacemos es que es patente el desequilibrio entre nivel de conocimiento del euskera y el uso que se prevería que hubiera en base a ese conocimiento. El castellano es el idioma mayoritario con diferencia. Como idioma secundario es el euskera el que más uso tiene. Aun así, no parece que haya tampoco en este caso una correspondencia proporcional entre el conocimiento del euskera que poseen madres y padres, y el uso que se hace de esa lengua en los hogares.

### Un patio diferente

Comenzamos con los talleres de ganchillo: 19, 17, 24 y 25 de Febrero. Valoramos de modo muy positivo la asistencia (han venido entre 10 y 15 mujeres) y el resultado de las labores. Las mujeres están con ganas de participar y hay mucha ilusión. La mayoría han acudido todos los días. Y a los próximos talleres lo seguirán haciendo. Compramos más lanas porque con las que hay no creemos que sean suficientes.

No reunimos el día 11 de febrero. Acordamos que Gorka pase la información a los/as tutores, de la convocatoria de la exposición de dibujos sobre "el patio soñado". Según las propuestas de los txikis en sus dibujos, las tomaremos como referencia para elegir la idea para pintar las paredes/columnas del patio.

Pintar el patio: estamos valorando cuál será la mejor manera de pintarlo (encargar profesionales que lo organicen y las familias poder tomar parte en ello, contratar a unos grafiteros y colaborar en la medida de lo posible con ellos o hacerlo de modo aficionado por nosotros mismos).

Se redacta la convocatoria para el video, que ya ha salido publicada en la revista Sasoi (11 y 18 De Marzo de 16:00 a 18:00). La fecha final en la que decoraremos el patio será el 7 de Mayo. Los próximos 3 y 17 de Marzo a las 9:00 nos volvemos a reunir.



## RESUMEN - 2016/02 - LABURPENEA

### Hizketaldiak

Egindako bi hitzaldi hauek balorazio positiboa izan dute: lehen sorospenak eta haur higiena. Beste egun bat bilatuko da kanpoan geratu zen jendea etorri ahal izateko eta RCParen gaineko (erreamazioa) beste ikastaro bat antolatuko dugu, osasun zentroan azken hori.

Bestalde, 14an hitzaldi hau izango da: "Nola lagundu gure seme-alabei zorionsuagoak izan daitezten".

### Agate deuna

Arrakastatsua izan zen ekitaldia, jendetsua eta giro ona. Espero genuen baino jende gehiago etorri zen, seguru asko eguraldi onari esker.

Datorren urtera begira, errepideak gurutzatzerakoan, ondo legoke lagun batzuek (lau bat) zaintzea trafikoa. Komeniko litzateke bi eskolen artean talde zuzendari bat osatzea kanta modu bertsuan kantatzeko. Entseguak batera egingo litzukete talde horretako partaideek eta gero bakoitzak bere eskolako abesbatza zuzenduko luke. Txokolatea banatzeko 6 pertsona eta gaztainak banatzen laguntzeko beste 4 beharko lirateke.

### Eskolaz kanpokoak

Ortuko tailerrak datorren urtean eskolaz kanpoko ekintza bat izatea onartu da aho batez. Horrela, partaideek jarraikortasun bat izan dezakete.

Futbolari dagokionez, erabaki dugu ahal dela ikastetxean entrena dezatela. Hala ere, beharrezkoa balitz, Ariznabarreko kiroldegia eska dezakete guraso elkartearen izenean. Ondo ikusten dugu larunbatetan partidak izatea. Informazioa emateko bilera bat egingo da. Futbola bakarrik izango da lehen hezkuntzako bigarren eta hirugarren zikloetarako.

Bestalde, zenbait ekintzatan aldaketak proposatu ditugu, eskaera batzuei erantzuna emateko asmoz batetik, eta eskaintza batzuek aurrera egin ez dutelako bestetik.

Azkenik, hezitzaileei eskatuko diegu ekintzei buruzko balorazioa egin dezaten.

### Ortua

Ikastorduetan egiten diren ekintzetan laguntzeko, lehen hezkuntzako maila bakoitzean aita-ama bat edo bi jarri ditugu bitarteko; haur hezkuntzan, berriz, beste bi guraso.

Ekintzei dagokienez, haur hezkuntzako azken mailako hiru ikasgelek hondakinen bereizketa landu dute. Hil honetatik aurrera zizareak izango dituzte gelan, animaliatxo horiek behatzeko eta ikusteko zer lan handia egiten duten hondakin organikoak eraldatzeko.

Ez ahaztu eskola orduz kanpoko tailerrekin ere jarraitzen dugula. Hurrengoa martxoaren 15ean da, asteartea, 16:45ean; intsektuentzako hotel bat egingo dugu.

### Charlas

La valoración de las charlas de "primeros auxilios" e "higiene infantil" es muy positiva y se va a confirmar otra fecha para la gente que se quedó fuera, más un curso de RCP (reanimación), que se va a dar en el centro de salud.

Por otra parte, el día 14 haremos una charla sobre "Cómo acompañar a nuestras hijas/os para que sean más felices".

### Santa Águeda

La actividad resultó todo un éxito, con gran participación y buen ambiente. Acudió más gente de la que esperábamos, seguramente debido al buen tiempo.

De cara al año que viene, convendría designar a unas personas (unas cuatro) para vigilar el tráfico al cruzar carreteras. Sería de ayuda crear un grupo con participantes de las dos escuelas para coordinar los ensayos. Este grupo ensayaría en común y cada cual dirigiría luego el coro de su escuela de manera similar. Convendría designar 6 personas para repartir el chocolate y bebidas, y otras 4 para el reparto de las castañas.

### Extraescolares

Por tema de tener continuidad y de participantes, se ha propuesto que "huerto" pase de taller a Extraescolar de un día a la semana. Se ha aceptado por unanimidad.

En cuanto a fútbol, se establece que principalmente entrenen en el cole, aunque si fuera necesario puedan solicitar el polideportivo de Ariznabarra en nombre del AMPA. Se da el visto bueno a celebrar partiditos los sábados. Se prevé hacer una reunión informativa. Sólo se ofertará para el segundo y tercer ciclo de primaria.

Por otra parte, y debido a que se notan ciertas demandas y que hay otras ofertas que no cuajan, se plantean algunos cambios para el curso que viene en algunas actividades.

Por último, se va a pedir a los/as monitores/as que hagan una valoración de las actividades.

### Huerto

Para dar apoyo a las actividades en horario lectivo, se han propuesto una o dos personas de la comisión para hacer de enlace con cada nivel de primaria, y dos personas de enlace con todo infantil.

En cuanto a actividades, las tres aulas del último nivel de infantil han trabajado sobre la separación de residuos y a partir de este mes tienen a su disposición lombrices de tierra para observar y descubrir la gran tarea que realizan estos pequeños seres en la transformación de residuos orgánicos.

No olvidéis que además seguimos con los talleres extraescolares. El próximo es el martes 15 de marzo a las 16:45, donde construiremos un hotel de insectos.



## RESUMEN - 2016/02 - LABURPENA

### Institutua

Aurrez izena emateko sasoian 61 ikaslek eman dute izena Zabalgana institutuan. Zerrenda ikus daiteke Zabalgana ikastetxean, administrazioko atean.

Martxorako:

1.- Lurralde ordezkarezekin jarraituko dugu harremanetan, institutuaren funtzionamenduari buruzko kontuak zehazteko: irakasleak, ekipamendua...

2.- Institutuaren guraso elkarte sortzeko egin behar diren urratsak aztertzen ari gara.

3.- Hazi eta Hezi taldean lanean jarraituko dugu, auzoan hezkuntza publikoa eta kalitatekoa egon dadin. Datorren ikasturtean, azkenik, abian izango da Aldaialde, Zabalganeko haur eta lehen hezkuntzako hirugarren ikastetxea.

### LOMCE

Gure Hezkuntza Gasteizko Plataforma ebaluazio metodoei buruz informatzeko bilera bat antolatu du. Bertara LOMCEren kontrako batzordekide batzuk joan gara (gurasoak eta irakasleak).

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baieztatu du aurten ez direla egingo lehen hezkuntzako 6. mailako azterketak, baina 3. mailakoak egitea, berriz, zentroen esku uzten du. Gai hori, beraz, laster landu beharko dugu ikastetxeko irakasleekin.

### FESTA

Beste hiru bilera egin ditugu. Momentuz, honakoak adostu ditugu: puzgarriak, egurrezko jolasak eta Gargantua. Beste ideia batzuk ere baloratzen ari gara: musika, tailerrak, herri bazkaria, ... Datorren martxoaren 11a, ostirala, berriro bilduko gara.

### Instituto

Durante el periodo de pre-matriculas, 61 alumnos-as han solicitado matricularse en el IES Zabalgana. El listado se puede consultar en el CEIP Zabalgana entrando por la zona de administración.

Para marzo:

1.- Seguiremos en comunicación con delegación para seguir concretando aspectos prácticos sobre el funcionamiento del instituto: profesorado, equipamiento...

2.- Estamos estudiando los pasos que tendremos que dar para constituir el AMPA del nuevo instituto.

3.- Seguiremos trabajando en el grupo Hazi eta Hezi, por la educación pública y de calidad en el barrio. El próximo curso, el tercer centro de educación infantil y primaria de Zabalgana, Aldaialde, por fin será una realidad.

### LOMCE

Miembros de la comisión contra la LOMCE hemos acudido (padres y profesores) a una reunión informativa sobre los métodos de evaluación organizada por Gure Hezkuntza Gasteizko Plataforma.

El Departamento de Educación del Gobierno Vasco ha confirmado que este año no se realizarán las pruebas de 6º de EP, pero deja en manos de los centros educativos la realización de las pruebas de 3º de EP. Este tema lo tendremos que trabajar próximamente con los profesores del colegio.

### FIESTA

Hemos tenido tres reuniones más. Ya hemos acordado: hinchables, juegos de madera y Gargantua. Seguimos valorando también otras ideas: música, talleres, comida popular, etc. El próximo viernes 11 nos volvemos a reunir.



RESUMEN - 2016/02 - LABURPENA


**I. ERANSKINA / ANEXO I:**

**Txosten linguistikoa 2015-2016 / Informe lingüístico 2015-2016**




TXOSTEN LINGUISTIKOA / INFORME LINGÜÍSTICO (2015-2016)

**Etxean seme-alabekin gehienbat erabiltzen den hizkuntza / Idioma principal que se utiliza en casa con los hijos/as:**




**Neurri txikiago batean erabiltzen diren hizkuntzak / Idiomas que se utilizan en menor medida:**



**Zein da gurasoen jatorrizko hizkuntza? / ¿Cuál es el idioma nativo del padre y de la madre?**



**Zein da gurasoen euskara maila? / ¿Cuál es el nivel de euskera del padre/de la madre?**



**Erabiltzen diren beste hizkuntzak / Otros idiomas que se hablan en mayor o menor medida:**

- |                        |                        |                           |
|------------------------|------------------------|---------------------------|
| ✓ Albaniera / Albanés  | ✓ Errumaniera / Rumano | ✓ Hasani                  |
| ✓ Alemana / Alemán     | ✓ Errusiera / Ruso     | ✓ Kasina                  |
| ✓ Berebera / Bereber   | ✓ Fang                 | ✓ Manjacque               |
| ✓ Bissa                | ✓ Frantsesa / Francés  | ✓ Portugalera / Portugués |
| ✓ Bulgariera / Bulgaro | ✓ Galiziera / Gallego  | ✓ Ukraniera / Ucraniano   |
| ✓ Caló                 | ✓ Guaniera / Guaraní   | ✓ Urdu                    |



**EUSKARA KLASEAN / EL EUSKERA EN CLASE:**

- HH4-tik aurrera gehienek ulertzen dute euskara. / A partir de HH4 la mayoría entiende el euskera.
- LH3-tik aurrera gehienek dakite euskaraz hitz egiten. / A partir de LH3 la mayoría es capaz de hablar en euskera.

**Irakasleen ikuspuntua / El punto de vista del profesorado:**

“Harremanak gazteleraz izateko joera.”

“La tendencia es que las relaciones sean en castellano.”

“Irakasleari ere lehenengo hotza gaztelaniaz.”

“Incluso al profesor(a), lo primero que le hablan es en castellano.”

“Batzuk saiatzen dira baina beste askok ez.”

“Algunos/as lo intentan, pero muchos otros no.”

“Euskararen erabilera oso urria da.”

“El uso del euskera ez muy escaso.”

“Esanda ere asko kostatzen zaie euskaraz egitea.”

“Aún animándoles, les cuesta mucho hablar en euskera.”

“Gehienek ama hizkuntza ez dute euskara, eta dutenek erraz gaztelaniaz egiten dute.”

“Para la mayoría no es su lengua materna, y para los/as que lo es, se pasan con facilidad al castellano.”

“Oso ekintza erakargarriak antolatu behar dira euskaraz egiteko beharra sentitzeko.”

“Hay que plantearles actividades muy atractivas para que sientan la necesidad de hablar en euskera.”

“Gazteleraz hitz egiteko joera daukate haien artean.”

“Entre ellos/as tienen tendencia a hablar en castellano.”

“Erosoagoa da haientzat gaztelaniaz egitea.”

“Les resulta más cómodo hablar en castellano”.

“Irakaslea eskatuta, eta estrategia onarekin, gehiengoak egiten du, baina askotan berriro gogoratu behar zaie.”

“Si lo pide el profesor(a), y con una buena estrategia, la mayoría lo hablan, pero hay que recordárselo a menudo.”